



Ayuntamiento de Barañain
Barañaingo Udala

BARAÑAINGO
UDALAREN
HAUR ESKOLA

AURKIBIDEA

Argibide orokorrak, Barañaingo Udalaren Haur Eskolan sartzeko, (2017/2018 ikasturtea).

EDUKIA

Azala.

Barañaingo HEko ikastetxe publikoak.
2 - 3

Onartua izateko aurkeztu behar diren agiriak.
2 - 3 - 4

Hautapen baremoa.
5

Zerrendak argitaratzea.
8

Matrikulazioa.
9

Tarifak.
9

Plazen eskaintza.
10

Buletin honek argibideak jasotzen ditu, informazio gisa, **2015-01- 01etik 2017-05-12ra** bitarte jaiotako haurren familientzat zeintzuk nahi baitituzte sartu haiek Barañaingo Udalaren edozein Haur Eskolan, 2017/2018 ikasturterako. Ez zaie aplikatuko Barañaingo ikastetxe publikoetako edozeinetan 2016 -17 ikasturtean matrikulatuta dauden haurrei.

2017 / 2018 IKASTURTERAKO IZEN-EMATEA
Ikasle berrientzat - Martxoaren 1etik 15era

Barañainek haur hezkuntzako lehen zikloko bi ikastetxe ditu: **BARAÑAIN I:** Udaletxeko etorbidean (zk.g.) kokatuta, eta euskaraz irakasten du.

BARAÑAIN II: Zizur Zendeako ingurabidean (54. zk.) kokatuta, eta gaztelaniaz irakasten du.

Ikastetxe biek dituzte Nafarroako Gobernuak onartutako plan pedagogikoak, eta elkarlanerako hitzarmenak Hezkuntza Departamenduarekin, Udalaren jabetza duten ikastetxe horien kudeaketaren finantzaziorako.



BARAÑAIN I (Euskaraz)

INSTALAZIOAK



Solairu bakarreko eraikina dugu Haur Eskola, gune argitsuekin zeintzuetan indartzen baitira gorenera kanpo eta barruaren arteko harremanak, kanpoaldeko patio zabal batera irteera zuzena baitute ikasgela guztiek. Elkarren ondoan daude gune osagarriak, besteak beste, sendabaratzta, tailerra, psikomotritzitate gela eta jantokia, eguneroko lanaren mesedetan. Familia giroa eskaintzen du, eta beharretara egokitutako maila duen profesional taldea aritzen da.

SARTZEKO ESKABIDEAK BEHAR DUEN DOKUMENTAZIOA

a) Haurren jaioteguna eta eskatzailearen bizilekua egiaztatzen dituen dokumentua. Oraindik ere jaio ez den haurren eskabidea egiteko, noiz jaioko den aurreikusten duen txosten medikoa erantsiko da, adoptatutako edo harreraren hartutako haurren kasuan, kasuan kasuko frogagiria sartuko da.

b) NANaren, pasaportearen, atzerritarrentzako bizileku-txartelaren edo balio bera duen aitaren eta amaren edo legezko tutoreen nortasun agiriaren fotokopia.

c) Familiaren osaera frogatzen duen dokumentazioa.

- Familia-liburuaren fotokopia (aita, ama eta seme-alabak) edo, halakorik ez badago, antzeko agiri ofiziala osorik.
- Haurra harrera-egoeran dagoela edo adoptatua dela frogatzen duen agiria.
- Banantzearen edo dibortzioaren kasuan, hura ezartzen duen epai judiziala edo legez frogatzen duen dokumentua aurkeztu beharko da.
- Familia unitateko edozein kideren minusbalioa frogatzen duen agiria, edo familia unitateko kideren bat Gizarte Segurantzako pentsioduna dela frogatzen duen agiria, baldin ezintasun osoko, absolutuko edo baliaezintasun handiko pentsioa aitorturik badu.

d) Aitaren eta amaren edo legezko tutoreen lan-egoeraren eta/edo egoera akademikoaren frogagiriak:

- Besteren konturako langileen kasuan, aurreinskripzioaren epea bukatzeko egunaren aurreko 30 egunean Gizarte Segurantzaren edo dagokion mutualitatean alta emanda zegoela frogatzen duen agiria, eta enplegatzailearen zinpeko deklarazioa edo ziurtagiria.

Non eskuratu frogagiriak: **901 502 050** telefonora deituta, eta **www.segsocial.es** helbidean.

- Norberaren konturako langileen lan egoerak frogatzeko, aurreinskripzioa bukatzeko egunaren aurreko 30 egunean mutualitate orokorrean edo Gizarte Segurantzaren dagokion araubidean eta jarduera ekonomikoaren zergan altan zegoela frogatzen duten agiriak beharko dira.

BARAÑAIN II (Castellano)

INSTALAZIOAK



Gaztelaniazko Haur Eskola 1.000 metro koadroko azalera eraikia dago, eta baditu: hurrekin harreman zuzena izateko 8 gela (bainu eta siesta egiteko gelek); asiarako lau eremu (estaliak bi, estaligabeak beste biak); hiriko baratza; bularreko haurrentzat baizik ez den aisiarako eremua; jantokiak; aulkitxoentzako areto estalia; pintura tailerra; eta eremu administratiboa, garbiketa eta lehorketarako aretoekin, sukaldea, bulegoak, aldagela eta biltegiak. Barañaingo eremu pribilegiatu batean kokatuta dago, eta hurrek gurekin gozatu eta ikasiko dute, haien beharren mailako talde profesional batez inguratutik.

- Langabeziaren kasuan, enplegu eskariaren txartelaren fotokopia.
- Hiru urtetik beherako haurrak zaintzeko eszedentzian egonez gero, eszedentziaren jakinarazpena aurkeztuko da eta idatziz azalduko da lanera itzuliko dela ikasturtea hasi ondoko hilabete eta erdian beranduenez, jarduneko langiletzat har dadin.
- Eskaerak aurkezteko ulean ikasten arituz gero, matrikularen, ikasturteko egutegiaren eta ordutegiaren frogagiriak aurkeztuko dira.

e) Errenta mailak frogatzeko agiriak. *(1)

- Aitaren eta amaren edo legezko tutoreen azken errenta aitorenaren fotokopia. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpena egin beharrik ez bada, Ebazpen honetako Eranskinean jasota dagoen C.2. atalean zerrendatutako errenta edo diru-sarreraren zinpeko adierazpena, eta/edo ikastetxearen titularraren den toki entitateak beharrezkotzat jotzen dituen agiriak, 2015. urteko familiaren diru-sarrerak zein diren zehazteko, edo, 2016. urtekoak, baldin eta onartze prozesua 2017ko ekainaren 30a eta gero bideratzen bada.
- Baimena aurkezteko aukera izango du interesdunak berak, edota baimena emateko dagokion entitate titularrari, honek eska diezaion beharrezko dokumentazioa Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamendu edo unitate organiko eskudunari. Aipatu baimena -eskabidea beteta bideratu beharrekoa- dokumentazioa aurkezteko deialdiak ezarrita duen epealdian barne eman behar da. Era berean, agiria noiz eta non aurkeztu zen jaso beharko du eskabideak.

f) Aitaren, amaren edo legezko tutoreen bizilekua edo lantokia eraginpeko eremu geografikoan dagoela frogatzen duen dokumentua.

- Erroldaren ziurtagiria, Udalak emana, haurra eta aita edo/eta ama edo haurraren legezko tutoreak 2017ko urtarrilaren 1a baino lehen udalerrian erroldatuta daudela jasotzen duena, edo haurrarekin bizi den aita edo amaren lanagatik edo justifikatutako arrazoiengatik, udalerrira etortzeko etxebizitza aldaketa eginiko data.

*(1) FAMILIAREN ERRENTA IZANEN DA ZERGA-OINARRIAREN ALDE OROKORRA, KAPITAL HIGIGARRIAREN ERRENDIMENDUA ETA ONDARE-ESKUALDAKETAK (ETXEBIZITZA ZAHARBERRITZEKO EDO ESKURATZEKO JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAK KENDUTA).

- Aita, ama edo haurren tutoretza egiten duen pertsona eskatu den ikastetxean zerbitzuan ari bada, edo entitate titularraren Haur Hezkuntzako beste edozein ikastetxetan, Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeko Zuzendaritzaren ziurtagiria, eskatzailea bertan lanean ari dela agerrarazteko.
- Jaio gabeko haurren kasuan, haurren aitaren eta/edo amaren edo legezko tutoreen erroldaren ziurtagiria.
- Zaintza eta jagoletza dituen aitaren, amaren edo legezko tutorearen lantokia zein den frogatzen duen agiria.
- Bizilekuz aldatzea aurreikusi bada, etxebizitza ikasturtea hasi baino lehen emanen dela frogatzen duen agiria baloratuko da. Kasu horretan, gaur egungo bizilekua zein den adieraziko da jakinarazpenetarako, eta bizileku berria, berriz, baremazioa egiteko.

g) Sarbide zuzenerako baldintza bereziak betetzen direla frogatzen duen agiria:

- Haurren minusbalioa kalifikatzeko ziurtagiria eta/edo haurren mendekotasun handia (III. gradua) aitortzen duen egiaztagiria eta/edo profesional batek egindako txostena, dituen ezau-garriengatik hezkuntza berezia behar duela dioena.

h) Beste edozein egoera berezi baloratzen duten frogagiriak. Medikuaren, psikologoaren, gizarte langilearen edo zerbitzu espezializatu ofizialen txostena aurkeztu beharko da inguruabar hori frogatze-ko

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEALDIA - MARTXOAREN 1etik 15era

Herritarrak Hartzeko Bulegoan, astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:00etara.



OHARRAK eta DATUAK EGIATZATZEA

Hautapen Batzordea izendatuko du Udal bakoitzak, eta haren zereginetako bat izenen da edozein unetan ziurtagiri gehiago eskatzea, hautapen baremoan puntuazioa duten inguruabarrei buruz.

Alegatzen den egoerari buruzko ziurtagiriak aurkezten ez badira, zero puntuazioa emanen da onarpen baremoan dagokion atalean.

Egiaztatzen bada eskabidean edo erantsitako agirietan adierazitako datuak okerrak edo faltsuak direla, dagokion puntuazioa aldatuko da eta, kasua bada, emandako ikaspostua kenduko.

A) Aitaren eta amaren edo legezko tutoreen egoera soziolaborala edo akademikoa:

A.1) Haurraren aita, ama edo legezko tutoreak jarraian adierazten diren egoeretako batean daudenean: 20 puntu:

- Aita, ama edo legezko tutoreak lanaldi osoan edo partzialean daudenean biak.
- Aita, ama edo legezko tutoreak, biak, dedikazio handia behar duten ikasketa arautuak egiten ari direnean, behar bezala frogaturik.
- Aita, ama edo legezko tutoreetako bat lanaldi osoan edo partzialean edo dedikazio handia behar duten ikasketa arautuak egiten ari denean, behar bezala frogaturik.
- Familia gurasobakarrak, lanean edo ikasketa arautuetan ari direnak lehentasunezko dedikazioarekin.

A.2) Gurasoetako edo legezko tutoreetako bat lanaldi osoan edo partzialean edo dedikazio handia behar duten ikasketak egiten, eta bestea lan bila, 15 puntu.

A.3) Aita eta ama lan bila, 10 puntu.

-Heldu batek eta bere seme-alabek osatutako familiak, seme-alaben zaintza eta jagoletza modu esklusiboan dituztenak, behar bezala justifikatuta, eta lan bila ari direnak (familia gurasobakarrak), 15 puntu.

A.4) Lan-egoeraren kontzeptuari buruzko zehaztapenak:

1. Gizarte Segurantzaren edo, zein den kasua, jarduera ekonomikoen zergan alta eman gabe egindako lana ez da kontuan hartuko.
2. Seme-alaba baten jaiotzagatik lanean ez egotea, lanpostu finkorik izan gabe; hau da, ordezkoren zerrenden eta antzekoen kasuetan, ez da eszedentziazat hartuko.
3. Baremazioaren ondorioetarako, lanaldi osoko edo partzialeko lan gisa kontatuko dira ezintasun iraunkor osoa, absolutua edo baliaezintasun handia.
4. Ikasketak baloratzeko, ikasketa araututzat hartzen dira titulu akademiko ofizialak eskuratzeari begira egiten direnak: DBHa, Batxilergoa, Lanbide Heziketa, Unibertsitateko titulazioak, eta abar. Orobat, dedikazio handitzat joko da interesduna, ikasketa planaren arabera, ikasturte oso bateko kreditu edo irakasgaien %80an, gutxienez ere, matrikulatuta dagoenean.

A.5) Lan bila egoeraren kontzeptuari buruzko zehaztapenak:

Pertsona bat lan bila dabilela joko da Nafarroako Enplegu Zerbitzuko edozein agentzian edo enplegu agentzia baimendutan enplegu eskatzaile gisa inskribatuta dagoenean.

B) Familiaren osaera, gehienez metatzen ahal den puntuazioa: 15 puntu.

B.1) Modalitateak:

- Deialdi eta ikastetxe beretan bi seme-alabarentzat edo gehiagorentzat ikaspostua eskatzen duten familiak (ikaspostuaren erreserba sartzen da, baita jaiogabearentzako eskaera ere), 15 puntu.

- Sei urtez azpiko bi seme-alaba edo gehiago dituzten familiak, puntu bat seme-alaba bakoitzeko. Ondorio horietarako, bakarrik kontuan hartuko dira aurreinskripziorako epea bukatu arte jaiotako seme-alabak.
- Heldu batek eta bere seme-alabek osatutako familiak, seme-alaben zaintza eta jagoletza modu esklusiboan dituztenak, behar bezala justifikatuta (familia gurasobakarrak), 5 puntu.
- Familia unitateko edozein kideren minusbalio fisiko, psikiko edo zentzumenekoa, gutxienez %33koa eta aitortua bada, 4 puntu.

B.2) Familiaren osaeraren kontzeptua:

1. Familia unitatearen zati dira zaintza eta jagoletza dituzten aita eta ama edo adingabearen tutoreak, seme edo alaba adingabeak, salbu eta gurasoen baimena izanda haiekin bizi ez direnak, eta judizialki ezgaituta eta guraso-aginte luzatuaren edo birgaituaren mende dauden adin nagusiko seme-alabak. Familia harreraren diren haurrak familia unitateko kideztat joko dira ondorio guztietarako.

2. Banantze edo dibortzio kasuetan, ez da kontatzeko kideztat joko adingabearen zaintza eta jagoletza ez dituen aita edo ama.

B.3) Zehaztapenak.

– “6 urtez azpiko seme-alabak” kontatzeko, 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera jaiotako seme- alabak hartuko dira kontuan.

– “Bi anai-arrebarentzat edo gehiagorentzat ikaspostua eskatzea deialdi berean” kontzeptuagatik emandako puntuazioa galdu eginen da eskatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoientatik matrikula egiten ez bada.

– Familia harreraren diren haurrek, betiere egoera hori behar bezala frogatuta, ikastetxean anai-arrebak izateagatik ematen den puntuazioa lortzen ahalko dute, familia-hartzaileak eskatutako ikastetxean seme edo alabaren bat badu eskolatuta.

ATEAK ZABALIK JARDUNALDIA

BARAÑAIN I zentroa-Euskara-

Udaletxeko etorbidea, zk.g.

Tel.: 948 186 950

einfantil@baranain.com

**Otsailaren
22an
16:00etan**



BARAÑAIN II zentroa-Gaztelania-

Zizur Zendearen ingurab. 54

Tel.: 948 287 693

einfantil03@baranain.com



**Otsailaren
24an
17:30ean**

C) Familia unitatearen urteko errenta mailak, metatu ezinezko puntu gehienez:

C.1) Errenta tarteak eta puntuazioa:

- LGS (lanbide arteko gutxieneko soldata) halako 1,5, gehienez ere: 15 puntu.
- LGS halako 1,7, gehienez ere: 12 puntu.
- LGS halako 2,8, gehienez ere: 8 puntu.
- LGS halako 3,9, gehienez ere: 4 puntu.
- LGS halako 3,9 baino gehiago: 0 puntu.

C.2) Errenta mailen kontzeptuari buruzko zehaztapenak:

1. Familia unitatearen urteko errenta izanen da aitaren eta amaren edo legezko tutoreen 2015eko diru-sarrera edo errenta indibidual justifikatuen batura.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko 2015eko zergaren aitorpena aurkeztuta justifikatuko da familia unitatearen urteko errenta.

2. Errenta indibiduala izanen da zerga-oinarriaren alde orokorrari kapital higigarriaren errendimenduen saldo positiboa eta ondare-eskualdaketen saldo positiboa batzearen emaitza, etxebizitza zaharberritzeko edo eskuratzeko jasotako diru-laguntzak kenduta.

Ondorio praktikoetarako, errenta kalkulatzeko laukitxo hauek batuko dira: Nafarroako Foru Komunitatean, 2015. ekitaldiko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpeneko 507, 8810, 8808 laukitxoak ken 708 laukitxoak, edo horien baliokide direnak Estatuko gainerako aitorpenetan.

3. Persona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpena egin beharrik ez bada, 1. eta 2. azpitaletako errenta eta diru-sarreraren zinpeko adierazpena, eta/edo ikastetxearen titularra den toki entitateak beharrezkotzat jotzen dituen agiriak, 2015. urteko familiaren diru-sarrerak zein diren zehazteko, edo 2016. urtekoak, baldin ikasleak hartzeko prozesua 2017ko ekainaren 30aren ondokoa bada.

4. Banantze edo dibortzio kasuan:

– Haurraren zaintza eta jagoletza dituen aitaren edo amaren errenta aitorpena edo diru-sarrerak hartuko dira kontuan.

– Oinarri honen 2. atalean xedatutakoaren arabera kalkulaturako diru-sarreretatik, zaintza eta jagoletza ez dituen aitak edo amak seme-alaben mantenurako urtean ordaindutakoa kenduko da; betiere, itun erregulatzailerik edo erabaki judizial baten arabera ordaindutakoa izan behar du.

D) Eraginpeko eremu geografikoa; puntuazioa, gehienez ere: 20 puntu.

D.1) Haurra eta aita eta/edo ama eta/edo legezko tutoreak 2017ko urtarilaren 1a baino lehen eskaeraren xedeko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxea dagoen udalerrian edo eraginpeko eremu geografikoan den udalerriri batean erroldatuta egoteagatik: 20 puntu.

D.2) Aita, ama edo legezko tutorea eskaeraren xedeko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxea dagoen udalerrian edo eraginpeko eremu geografikoan lanean aritzeagatik: 8 puntu.

D.3) Aita, ama edo legezko tutorea entitate titularraren Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxe batean lanean aritzeagatik: 5 puntu.

E) Beste irizpide batzuk.

Hautapen Batzordeak beste behar larri batzuk, pertsonalak, familiakoak edo sozialak, behar bezala frogatuak eta aurreko atalean bildu gabeak, hartzen ahal ditu kontuan (10 puntu, gehienez ere).

F) Puntuazioko berdinketa kasuak ebaztea.

Baremoa aplikatuta, adin talde bakoitzerako eskaintzen den azken ikaspostuan berdinketa gertatuz gero, egoera ebazteko irizpide hauek aplikatuko dira, bata bestearen ondoren:

- Ikastetxean anai-arrebak dituzten haurrak.
- Familiaren errenta txikiena
- Berdinketak jarraituz gero, Hautapen Batzordeak ebaztiko du zozketa baten bitartez.

G) Beste herrietako bizilagunak onartzea.

Haur eskolaren udal titularrak beste udalerrietako haurrak ez onartzeko ahalmena izanen du, haiek udal titularrari dagokion moduluaren portzentajea ordaintzeko konpromisoa, bizilekuko udalarena edo familiarrena berarena, aurkezten ez badute idatziz.



NOIZ JARRIKO DIRA ZERRENDAK JENDAURREAN

ONARTUEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA: 2017ko MAIATZAren 5ean

ERREKLAMAZIOETARAKO EPEALDIA: 2017ko MAIATZAren 5etik 11ra

Erreklamazioak ikastetxearen entitate titularrean aurkeztuko dira, Hautapen Batzordeari zuzenduta, eta azalduko da zergatik eskatzen den behin-behineko zerrendetan agertutako puntuazioa berrikusteko. Ezin izanen dira inolaz ere hautapen baremoan puntuazioa ematen duten agirietako akatsak zuzendu.

BEHIN BETIKO ZERRENDA: 2017ko MAIATZAren 19an

Onartua izanaren banakako jakinarazpenak ez dira egingo.

**NON KONTSULTATU ZERRENDAK
(BEHIN-BEHINEKOAK eta BEHIN BETIKOAK)**

Udalaren iragarki oholean Haur Eskoletan
www.barañain.eus
 948 012 012 Telefonoan

2017ko maiatzaren 17tik 26ra. SOILIK BEHIN BETIKO ONARTUAK IZAN DIRENENTZAT

Matrikula egiteko, beharrezkoa da haurrak 16 aste beteak izatea ikasturtea hasten denean. Beste seme-alaba batzuegatiko kuotak ordaindu gabe dituzten familiek ezin izanen dute haurren lehen aldiko matrikula egin.

Ezarrিতako epean matrikularik egiten ez bada, ikaspostuari uko egin zaiola ulertuko da, eta beste esleipen bat eginen da itxarote-zerrendako ordenari jarraituz.

Eskatutako aukeretako batean matrikula egiteak ikastetxe bereko beste aukera guztiei uko egitea ekarriko du, edo herri bereko beste edozein ikastetxetakoei, ikastetxearen entitate titularrak hala ezartzen duen udalerrietan.

Matrikula egiteak eskolara joateko konpromisoa eta ezarrিতa dauden tarifak ordaintzea dakar berekin, borondatezko bajak diren kasuetan izan ezik.

TARIFA

1.- Hezkuntza Departamentuak ezarrিতakoaren arabera aplikatzen dira tarifak.

PER CAPITA ERRENTAREN TARTEAK		ESKOLATZEA	JANTOKIA	ESKOLATZEA + JANTOKIA
ZENBATEKO HONETATIK	HONETARA			
15.000 baino	handiagoa	233	95	328
12.400,01	15.000	199	95	294
10.700,01	12.400	157	95	252
9.300,01	10.700	122	95	217
7.980,01	9.300	97	84	181
6.650,01	7.980	71	84	155
5.500,01	6.650	63	66	129
4.500,01	5.500	52	58	110
3.350,01	4.500	39	56	95
3.350 edo txikiagoa		23	52	75

2.- Familia gurasobakarren kasuan, tarifen taula hau aplikatuko da:

PER CAPITA ERRENTAREN TARTEAK		ESKOLATZEA	JANTOKIA	ESKOLATZEA + JANTOKIA
ZENBATEKO HONETATIK	HONETARA			
15.000 BAINO	Handiagoa	210	84	294
12.400,01	15.000	179	84	263
10.700,01	12.400	141	84	225
9.300,01	10.700	110	84	194
7.980,01	9.300	87	66	153
6.650,01	7.980	64	66	130
5.500,01	6.650	56	52	108
4.500,01	5.500	50	42	92
3.350,01	4.500	37	32	69
3.350 edo txikiagoa		21	25	46

Bi seme-alaba edo gehiago dituzten familiek %50erainoko deskontua izanen dute bigarren haurragatik dagokien eskolatzetara, betiere gutxieneko tarifatik behera jaitsi gabe. Hirugarren seme-alabak ere gutxieneko eskolatzetara ordainduko du.

Bi anai-arrebek jantokia erabiltzen dutenean, lehenengoak errentari dagokien tarifa ordainduko du, eta bigarrenari gutxieneko tarifa egokituko zaio.

Matrikula egiterakoan ezarriko dira tarifak eta ezin izango dira aldatu ikasturte osoan. Ikastetxeak 208 egunetan irekita egoteagatik ordaintzen dira 10,6 hileko.

Familia bakoitzak ordaindu beharreko hileko tarifak alde batera utzita, toki entitate bakoitzak nahitaez ordaindu beharreko matrikulazio kuota ezartzen du, bermetzat hartuko dena eta matrikula egiterakoan ordaintzekoa. Barañaingo Udalaren hasierako kuota: 120 €.

Urteko per capita errentatzat hartuko da familia unitatearen zerga-oinarria (pertsona fisikoen errentaren gaineko 2016ko zergaren aitortpenetik) zati familiako kide guztien kopurua matrikula egiterakoan.

ORDUTEGI OSOKO JARDUNA

Barañaingo ikastetxe publiko biek ordutegi osoko eskaintza dute:

Sarrera ordua: 7:30etik 9:30era.

Irteera ordua (aukeran):

- Jantokirik gabe: 12:00etan.
- Jantokiarekin: 13:00etan.
- Jantokia eta siestarekin: 15:15etik aurrera

(asteazkenetan 15:30ak arte, gainontzeko egunetan 16:30ak arte)

Ikasturteko egutegia onartzeke dago. Aurtengo ikasturtekoa kontsultatu daiteke.

Irailaren lehenengo astean hasiko da ikasturtea eta uztailaren bukaeran amaitu. (ONARTZEKE DAGO EGUTEGIA).

PLAZEN ESKAINTZA

Euskarazko eta gaztelaniazko plazak eskaintzen ditu Barañaingo Udalak 2017/2018 ikasturterako. Behin kontuan hartuta ikasle izanagatik ikasleku erreserbatuta duten haurren kopurua, hutsik geratu diren plazak emango ditu Udalak, bi ikastetxeetako ikasle- edukiera bete arte.

ARGIBIDEAK NON

HERRITARRAK HARTZEKO BULEGOAN www.barañain.eu

HAUR ESKOLETAN

Herritarren
948 012 012
arreta

Argitaratzailea:



Barañaingo Udalaren
Hezkuntza Arloa
Tel.: 948 286 310 (luzp. 1354)
educacion@baranain.com

Diseinua eta Muntaketa

soluciones *que* **gráficas**

Itzulpena:  Udalaren euskara
zerbitzua
Servicio municipal
de euskera